

# Kirol Eskaintza 2025



FORTUNA  
kirol elkartea  
club deportivo



# Fortuna Kirol Elkartea

1911. urtean sortu zenetik, Fortuna Kirol Elkartea espezialitate anitzeko kirol afizionatua bultzatzea helburu duen erakundea da. 2011. urtean ehun urte bete zituen.

Egungo bazkide kopurua: 1.200 bazkide.

Fortuna K.E.k Oinarri kirola bultzatzen du, lehiaketakoa nahiz aisialdikoa, kutsu herrikoa eta parte hartze irekia duten hainbat kirol proba antolatzearekin batera.

Kirol Proba Aipagarrienak: Mendi zeharkaldia (1941. urtetik) eta guztietan eza-gunena, Behobia-Donostia lasterketak 1919an izan zuen lehen edizioa.

Egungo Sailak:

- Eskrima
- Mendi eta eskalada
- Ur Kirolak: Igeriketa, SUP eta arrauna
- Boleibola
- Mahai tenisa
- Atletismoa

Kirol-azpiegiturak:

- Pio Baaja Kiroldegia (eskrima, mahai tenisa, eskalada eta beste hainbat kirol)
- Ur kiroletarako Kontxa hondartzako lokala

# Pío Baroja kiroldegia

Ondorengo Kirol Guneak dituen Kirol Instalazioa:

- Kirol Anitzeko pista
- 2 Areta, erabilera anitzekoak
- Tatamia
- Rokodromoa
- Boulderra. Hastapena eta aurreratua
- Eskrima aretoa



Helbidea:

Pío Baroja, 47  
20008 Donostia - San Sebastián  
(Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 214 900

Emaila: [info@cdfortunake.com](mailto:info@cdfortunake.com)





# Eskalada

Pio Baroja kiroldegiko indoor rokodromoan eskalada hastapen bat egin daiteke eskola taldeekin. Eskalada hormetan gora igotzean datza, berezko indar fisikoaz baliatuz. Rokodromoko eskalada sistema konbentzionala erabiliz lantzen da (soka, arnesa, finkatzeko elementuak, etab.)

Barne hartutako zerbitzuak:



INSTALAZIORAKO  
SARRERA



ROKODROMOAREN  
ALOKAIRUA



BEHARREZKO MATERIALA  
ALOKATZEA  
Arnesa, Sokak, Gri-Gri-ak



TALDEAK:

32

Gehienez, **32** pertsona aldi berean.





# Zer egiten da ikastaroan

Ikasleek arnesa jartzen ikasten dute eta monitoreak aseguratu eta gidatuta horman eskalatzera joaten dira zuzenean. Helburua kirola ezagutzea eta ondo pasatzea da.

Ikastaro luzeagoa bada, rokodromoan modu "autonomo" batean eskalatzeko ikastaroa ematen zaie. Hau da, segurtasun ezagutza minimoak ematen zaie, arnesa ongi jartzen, oinarrizko korapiloa egiten, GriGri-aren erabilera eta aseguratze teknika, horman gora eta behera segurtasunez ibiltzeko teknika etab.

Helburua eskaladan modu autonomoan ibiltzea da, kirola ezagutu eta ondo pasatzeaz gain.



# Eskrima

"BALETAREN DOTOREZIA, XAKEAREN ESTRATEGIA, BORROKA ARTEEN BALIOA"

Eskrima kirol bat da, zeinean bi pertsonak, kareta batekin eta jantzi berezi batekin babestuta, espata, sablea edo floreteak maneiatzen duten; irabazten du arerioa armaz behin ukitzea lortzen duenak.

Gaitasun fisikoa hobetzen du, oro har. Indarra, abiadura eta malgutasuna bezalako ezaugarriak. Koordinazio-gaitasunak hobetuz.

Barne hartutako zerbitzuak:



INSTALAZIORAKO  
SARRERA



ESKRIMA-ARETOAREN  
ALOKAIRUA



BEHARREZKO MATERIALA  
ALOKATZEA  
Kareta, jaka, espata/sablea  
/floreteak.



TALDEAK:

20

Gehienez, **20** pertsona aldi berean.



# Zer egiten da ikastaroan

Klase honetan eskrima zer den ikusten da, eskrimaren oinarrizko mugimenduak ikasten dira, armaren erabilera eta bere arauak azaltzen dira eta ondoren borroka egiten dira. Helburua kirola ezagutzea eta ondo pasatzea da.

Ikastaro luzeagoa bada, lehen zatia berdina izango litzateke baino gero, ikasleek eurek fabrikatzen duten material alternatiboarekin, teknika lantzen dute eta azkenean lehiaketa bat egiten da, zer ikasi duten ikusteko. Helburua eskrimaren ezagutza orokor bat izatea da ondo pasatzeaz gain.



# Mahai Tenisa

Mahai-tenisa da praktikatzaile gehien dituen kirola, 40 milioi jokalarirekin, mundu osoan zehar lehiatzen. Hainbat ikerketak erakutsi dutenez, kirol honen praktikak hobetu egiten ditu, besteak beste, erreakzionatzeko gaitasuna eta denbora, begia-eskua koordinazioa, kontzentrazioa eta memoria..

Barne hartutako zerbitzuak:



INSTALAZIORAKO  
SARRERA



MAHAI-TENIS ESPAZIOAREN  
ALOKAIRUA



BEHARREZKO MATERIALA  
ALOKATZEA  
Mahaiak, palak, pilotak



TALDEAK:

20

Gehienez, **20** pertsona aldi berean.

# Zer egiten da ikastaroan

Ikasleei mahai tenisaren oinarritzko materiala azaltzen zaie eta kirolaren nondik norakoak azaldu ondoren praktikatzen hasten dira irakaslearen gidaritzapean. Helburua kirola ezagutzea eta ondo pasatzea da.


Ikastaro luzeagoa bada, mahai teniseko teknikak eta arauak erakusten zaizkie, nola hobetu erreakzio gaitasuna. Helburua mahai teniseko ezagutza orokor bat izate da ondo pasatzeaz gain.



# MultiKirola



1, 2 edo 3 kirol konbinatzeko aukera  
behin gure instalakuntzetara etorrita.




## PISTA-ALOKAIRUA:

Pio-Baroja udal kiroldegiko kirol-anit-  
zetarako pista oso edo erdia alokatu  
liteke ekintza ezberdinak egiteko.



# Kontxako egoitza

Kontxako hondartzaren bahia paregabea, eskola-taldeentzako uretako jarduerak egin daitezke hondartzako Fortunaren instalazioan, Kontxako erlojuen azpian.



Helbidea:  
Kontxa Pasealekua, 6  
20007 Donostia - San Sebastián  
(Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 42 11 33  
Emaila: [hondartza@cdfortunake.com](mailto:hondartza@cdfortunake.com)

# Hondartzako Jarduerak:



ITSASOKO KAYAK-A

- banakakoa
- bikoitza



STAND UP PADDLE:

- banakako taula
- 3-4 pertsonentzako taula
- 7-8 pertsonentzako XL taula

Barne hartutako zerbitzuak:



INSTALAZIORAKO  
SARRERA



KAYAK ETA TAULEN  
ALOKAIRUA



BEHARREZKO MATERIALA  
ALOKATZEA  
Txalekoak, Neoprenoak




TALDEAK:

Gehienez, **80** pertsona aldi berean.



# Zer egiten da ikastaroan

Ikasleei, itsasoarekiko lehen kontaktu honetan, arau orokor batzuk eman ondoren monitoreen laguntzaz itsasoan murgiltzen dira aukeratutako kayak edo SUP taularekin. Helburua itsasoan egin litezkeen kirolak ezagutzeaz gain ondo pasatzea da.



# Multikirola Hondartza



+

# Pio Baroja



Kontxako gure egoitzako eta Pio Baroja  
Kiroldegiko kirolak konbinatzeko aukera  
dago.





# Kontaktua:

 Maialen Arizkorreta

 629 57 48 44

 maialen.a@cdfortunake.com

 @cdfortunake

 @cdfortunake

 @CDFortunaKE

